



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abuztuaren 29a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00291. Galdera, kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00292. Galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00293. Galdera, INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue Bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00295. Galdera, fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00296. Galdera, erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00297. Galdera, osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00298. Galdera, taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00300. Galdera, migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00301. Galdera, Bidean ente instrumental deklaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00302. Galdera, Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00303. Galdera, udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- 11-24/PES-00304. Galdera, Irigarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00305. Galdera, dantzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00306. Galdera, "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00307. Galdera, Irigarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00308. Galdera, Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00309. Galdera, ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Iñaki Iriarte López jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (28. or.).
- María Isabel Olave Ballarena andrea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea (28. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00291. Galdera, kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00291 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

• Gaur egun baloratzen ari diren espedienteen sarrera data:

– Erretiroko kotizazio gabeko pentsioa. 2024ko ekainaren 27a.

– Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioak: egunean.

– Alokairurako osagarria kotizazio gabeko pentsioa dutenentzat: egunean.

– Errenta bermatua: 2024ko apirilaren 15a.

– Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera: 2024an aurkeztutako espedienteen balorazioa laster hasiko da. (1.646 espediente dira). 2023an aurkeztutako espedienteetatik egun 433 daude baloratuta baina ebatzi gabe. Egoera berean, baloratuta baina ebatzi gabe, 2022an aurkeztutako 51 espe-

diente daude, eta 2021eko bi espediente. Kontuan hartu behar da 2022ko urriaren 1etik aurrera Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Nafarroari eskualdatu egin ziola bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa eta PZSSI-Prestazio eta Zerbitzu Sozialen Sistema Integratuan alta eman zirela ebatzita edo aktibo dauden 5.841 espediente, ebatzi gabeko 2.423 espediente eta 2023an aurkeztutako 3.692 eskaera. Halatan, 2023ko maiatzean eskura egon zen prestazioa kudeatzeko sistema informatikoa eta lehenbiziko eskaerak ebazten hasi zen. Aurreikuspena da datozen hilabeteotan laburtuko dela ebatzi gabe dauden eskaerak baloratzeko epea hura doitu arte, ebatzi gabeko espediente gehienak eta 2023ko eskaerak baloratuta.

• Behar den batez besteko denbora, 3 prestazio motetako bakoitza ordaintzen hasteko, behin prestazioa onartu ondoren.

– Arau orokor gisa, prestazioak emateko ebazpenak ordaintzen dira haien eman ziren hileko ordaintzen ondotik datorren lehen prozesuan, Departamentuaren gainerako prestazioen nominaren ordaintzarekin batera. Hileko ordaintzaren data hilabete bakoitzeko azkenurreko egun baliodunean izan ohi da.

Emateko ebazpenak, hilean gastuen ordaintza sortutako dataren ondorengoak, hurrengo hilean ordaintzen dira.

Hala ere, eta bakarrik Errenta Bermatuaren eskaerei dagokienez, hileko ordaintza berezi bat dago, ordaintza arrunta baino bi edo hiru egun geroago ordaintzen dena, emandakoetatik hilabete horretan ahalik eta gehien ordaintzeko, hurrengo hilabetera arte itxoin behar izan gabe.

• Jada ordaindutako prestazioetatik zenbat erreklamatu ziren 2023an itzultzeko. Zer itzulketa-

modu planteatzen diren aipatutako 4 prestazio horietako bakoitzerako.

2023an kotizazio gabeko pentsioak itzultzeko 205 prozedura abiarazi dira; itzultzeko arrazoiak izan dira prestazioaren azkentzea edo zenbatekoen aldaketa, prestazioaren urteko berrikusketaren ondorioz.

Itzultzeko prozedura, kotizazio gabeko pentsioen kasuan, dagokion ordainketa-gutunaren bidez egiten da: osorik ordain daiteke, borondatezko epean, edo zatika, borondatezko epean zein bide exekutiboan.

2023an ez da abiarazi itzultzeko inolako prozedurarik, alokairurako osagarriari dagokionez.

Bizitzeko Gutxieneko Errenta dela-eta, 2023an, prestazioa urte horretan ezarri baitzen Nafarroak kudeaketa bere gain hartuta, eta urteko berrikusketan ezin zenez egin, itzultzeko 9 espediente abiarazi ziren, jasotzeko baldintzak ez betetzeagatik.

2024ko urtarrilean 2023ko prestazioa berrikus-teari ekin zaio: 5.593 espediente berrikusi dira, eta horren ondorioz prozedura abiarazi egiten da 275 espedienteren kasuan, berrikusketaren ondorioz prestazioan bajan geratu eta zor hori konpentsatzeko (errenta bermatua) beste espedienterekin bat ez datozenak. Itzulketa dagokion ordainketa-gutunaren bidez egiten da. Bestela, berrikusketak prestazioan bajan geratzea ekarri eta Departamentuaren prestazioaren bat dagoenean, bizitzeko gutxieneko diru-sarreran sortutako zorra eraman

da beste prestazio horren espedientera (errenta bermatua) horren bitartez konpentsatzeko.

2023ko berrikusketak bizitzeko gutxieneko diru-sarrerako zenbatekoa gutxitzea, eta beraz zenbatekoak itzultzeko betebeharra, ekarri duen espedienteen (1239) kasuan, itzuli beharreko zenbateko hori konpentsatu da bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren beraren ondorengo hilerokoetan, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen duen araudian ezarritako prozedura eta portzentajeekin bat eta, subsidiarioki, Gizarte Segurantzako zorrak itzultzeko araudiarekin bat. Talde horretan, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudiarekin berarekin bat, zorra barkatu da bizikidetzako unitate jakin batzuetan, adingabeak egonda zorraren zenbatekoa hileko kotizazio gabeko pentsioen % 65 baino txikiagoa denean.

Azkenik, eta errenta bermatuari dagokionez, 2023an 939 espediente abiarazi ziren jaso behar ez ziren zenbatekoak itzultzeko, dagozkion ordainketa-gutunak emanda. Espedienteen arrazoia izan zen prestazioan bajan geratzeko arrazoiertako bat izatea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00292. Galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen, 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier

Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko idatzizko galdera dela-eta (11-24 PES-00292), zeinean itauntzen baitu Orreagako Errege Kolegiatako irisgarritasunari buruz, honako honen berri ematen du:

Orreagako Kolegiatako sarreran ez dago gurpil-aulkiz sartzerik. Errege Kolegiataren titularrei dago-kie gurpil-aulkietarako irisgarritasun proposamen bat egitea, zeina, BIN monumentua denez, Ondare Historikoaren Zerbitzuak baimendu beharko duen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00293. Galdera, INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak, Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (NKJFI) ADESPen eskutik abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzko informazioa du (11-24/PES-00293). Hona Nafarroako Gobernuak

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

Liderren Sarea prestakuntza-programak, zeina Nafarroan jarduera fisikoaren eta kirolaren alorrekin zerikusia duten emakumeei zuzentzen baitzaie haien garapen pertsonal eta profesionala indartzeko asmoz, 182 inskripzio-eskaera jaso zituen eskainitako 80 postuetarako.

Eskaera handiak agertu zuen zeinen interes bizia duten sektoreko emakumeek prestakuntza eta lidergorako aukera honetarako. Horregatik, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak, ADESPekin elkar harturik, postu-eskaintza handitzea erabaki zuen, interesatutako emakume guztiei erantzuna eta tokia emateko.

182 eskabideei baietza eman eta prestakuntzaren kalitateari eutsi ahal izateko, azken batean bi prestakuntza-txanda antolatzea proposatu zen. Lehena, apiriletik ekainera bitartekoa, izen emandako lehen 91 emakumeentzako; eta bigarrena, irailtik azarorako, hurrengo 91rentzako.

Lehen taldeak pasa den ekainaren 19an –asteazkena– egin zuen ikastaroa. Behin prestakuntza amaiturik, parte-hartze eta aprobetxamenduari buruzko zenbakizko datuak eskuratuko dira prestakuntza-plataforman eginiko erregistratzeetatik, bai eta nolakotasunezko datuak ere, parte-har-tzaileei eginiko iritzi-emate inkesta baten bidez.

Hori da jakinaraz dezakedana, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduko 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebe-ca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue Bideak, mila bide Nafarro-an" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak "ACD 5 Donejakue Bideak, mila bide Nafarroan" helmuga-ko turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekaina-ren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turis-moko kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko idatzizko galdera dela-eta (11-24 PES-00294), zeinean itauntzen baitu "ACD 5 Donejakue Bideak, mila bide Nafarroan" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planaren funts-partidaren exekuzioaz, honako honen berri ematen du:

Galderan aipatzen den partida egiazki da "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" Planaren kodea.

Informazio Sistemako Azpiproiektua (CoFFEE)	OSAGAIA	IDa Kudeatze-jarduketa	Kudeaketa-izendapena	Kudeaketa-departamentua (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 10/2023 FD, abuztuaren 17koa)
C14.I01.P02.S14.S02	C14-Turismo-sektorearen modernizazio eta lehiakortasunerako Plana	ID047	"ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" Helmugako Turismo Jasangarritasunerako Plana	Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

KUDEAKETA-PLANA	BETEBEHARRAK AITORTZEKO aurreikusitako PLANA	ESLEITUTAKO FINANTZAKETA 2020-2026	Lotura-maila SAPEkin	Kontabilitate-proiektuaren zenbakia	PEP elementuak	ESKUBIDE AITORTUAK	BETEBEHAR AITORTUAK
PG094	2T/2026	5.830.000	PC:	556	556-01/07	5.830.000	183.732

Jasotzen duen zenbatekoa, 183.732 €, da
2023an honako kontzeptuetan exekutatu:

	2023
NASUVINSARI BOST BIDEEI BURUZKO DIAGNOSTIKORAKO ENKARGUA EGITEA	9.141,12
NASERTIC-I "BIDE ADIMENTSUA" ENKARGATZEA	29.327,69
NASERTIC-I DONEJAKUE BIDEAREN SUSTAPENERAKO BERRIKUNTZA ENKARGATZEA	41.228,53
DONEJAKUE BIDEARI BURUZKO INSPIRAZIO-NARRATIBA (ERRELATOA)	14.883
SEINALETIKA	59.625,47
KUDEAKETA-BULEGOKO LANGILEAK	14.643,18
PUBLIKO BERRIAK IDENTIFIKATZEKO AZTERLANA	14.883

Hori da jakinarazi ahal dudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00295. Galdera, fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kontseilariak, Alderdi Popularraren (PP Nafarroa) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irene Royo Ortín andreak fibromialgiadun pazienteen arretari buruz aurkezturiko galderari, idatziz erantzutekoari (11-24/PES- 00295), dago-kionez, honako hau jakinarazten du:

Kontseilariak ba al daki zein den fibromialgia duen paziente batek itxaron behar duen batez besteko denbora kontsulta baterako ?

Honako albiste hau dela-eta: <https://www.noticiasdenavarra.com/sociedad/2024/04/21/llevo-esperando-revision-ano-medio-8138423.html> Zein da kontseilariak egiten duen balorazioa eta zer irtenbide emanen du departamentuak?

Gaur egun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan fibromialgiadun 4.517 paziente izaten ari dira artatuak. Fibromialgiadun pazienteen arretarako, badago berriazko ildo bat, kronikoen-tzako estrategiaren barrenean. Estrategia hori ONOZen artaturiko fibromialgiadun eta neke kronikoaren sindromedun paziente guztiei zuzentzen zaie.

Estrategiaren hastapenetatik zegoen begiztatuta prozesu kroniko guztien artean lehenetsitako profiletan jasota egotea fibromialgia. Fibromialgiadun pazienteak paziente kronikoaren estrategiaren barrenean artatua izateak, paziente pluripatologikoarekin ohi den bezalaxe, balorazio global bat barne hartzen du (laztasun klinikoa, zaintza-premiak eta beharizan sozialak). Patologia nagusi gisa fibromialgia duen paziente baten laztasun klinikoa zehazterakoan, FMren inpaktu-galdetegia (FIQ) erabili ohi dugu. Balorazio eta laztasunaren

zehaztapen horren ondoren, beharizanen araberrako arreta planifikatzen da.

Oinarrizko Osasun Laguntzako medikua da fibromialgia duten pazienteentzako erreferentziako espezialista, eta laguntza eskatu ahaliko die beste espezialitate batzuei (Erreumatologia, Osasun Mentala, Minaren Unitatea...) kontsulta presentzialez nahiz ez-presentzialez, pazientearen premiek horretara behartzen dutenean edo trataerari buruzko zalantzarik edukiz gero.

Fibromialgiadun paziente batek ospitale-kontsulta baterako duen batez besteko itxaronaldia

desberdina izanen da, zein espezialitateri bidaltzen zaion Oinarrizko Osasun Laguntzatik pazientearen premiaren araberrako eskaera, eta nolako lehentasunez bidaltzen zaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00296. Galdera, erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San

Martín Rodríguez andreak galdera idatzia egin du, lau erditze García Orcoyen ospitaletik Iruñera deribatze arrazoiari buruz (11-24/PES-00-296). Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko kontseilariak honako hau jakinarazten du horri buruz:

Erditzeak Iruñera izan ziren deribatuak gardian zegoen ginekologoak hala iritzi izan ziolako.

Hori da jakinarazten dizudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00297. Galdera, osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera idatzi hau (11-24/PES-00-297) egin du: "Osasun Departamentuak zer kalitate-adierazle erabiltzen ditu gaur egun Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua baloratzeko, eta zeintzuk erabiliko ditu Bidean osasun-garraioko enpresa publiko berrian?". Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Erantzuna emateko, kontuan hartu beharrekoak dira Nafarroako osasun-garraioaren egungo egoerari buruzko honako kontsiderazio hauek:

1. Nafarroako osasun-garraioaren ereduak bi mota barne hartzen ditu:

– Osasun-garraio urgentea, zeinaren gaineko ardura banatuta baitago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren artean. Azken horrek jartzen ditu osasun-garraio urgentearen eskura suhiltzaile-etxeetako ambulanziaz eta larrialdietako helikopteroa.

– Osasun-garraio programatua, zeinaren gaineko ardura osoki baitauka Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak.

2. Osasun-garraio publikoa, O-NOZek kudeatua (Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzua da kudeatze-unitatea), gaur egun oraindik ere da Ambulancias Baztán Bidasoa, SL (BB) eta Servicios Sociosanitarios Generales, SL (SSG) enpresen bitartez emandako zerbitzua, eta barne hartzen ditu osasun-garraio ez-urgentearen zerbitzua (programatua eta ez-programatua) eta osa-

sun-garraio urgentea, oinarrizko bizi-euskarriko (OBE) ibilgailuekin eta bizi-euskarri aurreratuko ibilgailu edo Zainketa Intentsiboko Unitate mugikorrekin.

3. BB eta SSG enpresak izan dira O-NOZek eginiko azken lizitazioetako esleipen-hartzaileak; eta, nahiz eta kontratu horiek bukatu egin ziren, harremana eta zerbitzu-ematea atxiki egin dira, azken kontratuetan jasotakoan antzekoak diren baldintza teknikoetan, eta horiek egokitu egin dira egungo egoerara eta indarreko araudira, bai eta osasun-garraioaren zerbitzuaren erabilera egokirako jaulkitzen diren barne-erabilerarako jarraibideetara ere.

4. 2023ko ekainaren 26an eratu zen osasun-garraioko enpresa publikoa, Transporte Sanitario de Navarra Bidean, SL izenpean. Haren misioa zen osasun-garraioaren zerbitzua ematea horren beharrean dauden Nafarroako osasun-sistema publikoko pazienteei, segurtasunez, irisgarritasunez eta pazientearen beharrezanezko dituta, prestazio horretan parte hartzen duten gainerako baliabide publikoekin koordinatuta, unean-unean indarrean dauden zerbitzu-estandarrei loturik.

5. Harik eta enpresa publikoa zerbitzua ematen hasten ez den arte, jardun hori jada aipaturiko enpresek eginen dute.

Aurreko guztia aintzat harturik, esan behar da ezen, hertsiki kalitate-adierazlerik aplikatzen ez bada ere, azken plegu indardunetan jasotakoaren antzeko moduan jarduten dela, baldintza tekniko-en zainketa, aplikazio eta betetzeari dagokienez enpresen eta O-NOZen artean beharrezkoa den koordinazioari dagokionez, bai eta sor litezkeen gorabeheren berri izateari dagokionez ere.

Horrela, ospitale bakoitzeko harrera- eta urgentzia-zerbitzuen arduradunek solaskide bakartzat dihardute, osasun-garraio ez-urgenteari dagokionez, enpresen eta laguntza-zerbitzuen artean, eta koordinazio horretatik eraginkortasun handiagoa eratortzen da kontratatutako zerbitzuentzat.

Halaber, zerbitzu-emaile diren enpresak konprometituta daude lankidetzan aritzera, bai preskriptore diren osasun-etxeekin, bai eta haien artean ere, eskuragarri dauden baliabideen aprobetxamendurik eta koordinaziorik handiena

lortze aldera, pazienteen erosotasunerako eta lekualdatzeen azkartasunerako.

Horretaz gain, enpresak konprometituta daude erabiltzaileen erreklamazioak eta iradokizunak kudeatzeko eta zuzentze-neurriak ezartzeko, bai eta O-NOZi horiei buruzko informazio guztia bidaltzeko ere. Neurri horri eraginkor iritzi zaio erabiltzaileen problemak detektatu eta horiek konpontzeko neurriak bilatu ahal izateko.

Erreklamazioen segimenduz eta zuzenketaz gain, O-NOZek ikuskapen-eskubidea egikarituko du (egin ere, halaxe egin izan du zenbaitetan), hori guztia kalitatezko zerbitzu bat ziurtatu ahal izateko lanabes gisa. Segurtasun-baldintzetan, eta pazienteen beharrianetara doitu.

Bestetik, Bidean-en aintzat hartuko diren kalitate-adierazleei dagokienez, zerbitzuaren kalitatearekin zerikusia duten adierazleak ardatz bakoitzarekin eta horren estrategiekin lotuko dira.

1. ardatza. Osasun-sistemarekiko integrazioa

1. Protokoloak ezartzea eta larrialdiak koordinatzea:

- Koordinazio-protokoloetarako atxikitze-tasa: Ezarritako protokoloak betetzen dituzten garraio-eskaeren portzentajea.

- Larrialdietako erantzun-denbora: Larrialdiko zerbitzua eskatzen denetik garraioa iritsi bitarteko batez besteko denbora.

- Osasun-erakundeekiko komunikazio-maiztasuna: Garraioaren eta osasun-erakundeen arteko hileroko komunikazio-kopurua.

2. Informazio-sistema konpartitu bat garatzea

- Erregistro digital eguneratuen portzentajea: Denbora errealean eguneratzen diren garraio-erregistroen proportzioa.

- Medikuntzako informazio muntadunaren eskuratze-tasa: Garraioan diharduten langileek pazienteari buruzko medikuntzako informazio muntaduna eskuragarri duten garraiatze-ekintzen ehuneko.

- Medikuntzako langileek informazio-sistemarekin duten asebetetzea: Medikuntzako langileek sistema partekaturako sarbideari eta horren erabilerari buruz duten asebetetze-maila.

3. Garraio-zerbitzu espezializatuak

- Larrialdietako ambulanzien eskuragarritasuna: Anbulantzia espezializatuak eskuragarri eta operatibo dauden denbora-portzentajea.

- Anbulanzien ekipamendu-maila: Beharrezkoa den ekipamenduari buruzko estandarrak betetzen dituzten ambulanzien portzentajea.

- Langile-trebakuntzaren maiztasuna: Garraio-ko langileentzat ekipo espezializatuaren erabilerarako eginiko trebakuntza-saioen kopurua.

4. Prestakuntza eta baterako trebakuntza

- Trebakuntza-programetako parte-hartzearen tasa: Baterako prestakuntzako programetan parte hartzen duten langileen proportzioa.

- Trebakuntza ondoko gaitasun-ebaluazioa: Trebakuntza-saioren ondoren eginiko langileen gaitasun-ebaluazioen emaitzak.

- Komunikazio-trebetasunen hobekuntza-indizea: Garraio-ko langileek komunikazio-trebetasunetan erdietsitako hobekuntzaren portzentajea, oinarri harturik trebakuntzaren aurretik eta ondotik eginiko ebaluazioetan.

2. ardatza. Egiazko estaldura unibertsala: Jasangarritasun soziala

1. Irispide geografikoa erraztea eta toki-beharrizanak ebaluatzea

- Zerbitzuaren estaldura geografikoa: Garraio-zerbitzuaren estaldurapeko hiri- eta landa-eremuen portzentajea.

- Toki-beharrizanen ebaluazioen maiztasuna: Zerbitzua egokitze aldera urtero eginiko azterlanen eta ebaluazioen kopurua.

- Erabiltzaileen asebetetzea landa-eremuetan: Zerbitzurako irispideari buruz landa-eremuetako erabiltzaileek duten asebetetze-maila.

2. Beste osasun-zerbitzu batzuekiko koordinazioa

- Osasun-zerbitzuekiko koordinazioaren tasa: Klinika eta ospitaleekin eraginkorki koordinaturiko lekualdatzeen portzentajea.

- Baliabide-optimizazioaren indizea: Garraio-baliabideen esleipenaren efizientzia-maila, pazienteen osasun-beharrizanetan oinarrituta.

- Lekualdatze-koordinazioa dela-eta pazienteek duten asebetetzea: Beren osasun-garraiatzeen koordinazioari buruz pazienteek duten asebetetze-maila.

3. Talde zaugarrien arta

- Zerbitzu egokituaren eskuragarritasuna: Beharrian bereziei erantzuteko ekipaturiko ibilgailuen portzentajea.

- Talde zaurgarrientzako lehentasunezko sarbi-dearen tasa: Pertsona zahar, desgaitu edo eritasun kronikodunentzat eginiko lehentasunezko garraioen proportzioa.

- Talde zaurgarrien asebetetzea: Garraio-zerbitzuari buruz talde zaurgarriek duten asebetetze-maila.

4. Hezkuntza, kontzientziazioa eta monitorizazioa

- Informazio-kanpainen irismena: Informazio-kanpainak zenbat pertsonari iristen zaizkion.

- Erkidego-hezkuntzako programetako parte-hartzea: Zerbitzuari buruzko hezkuntza-programetan parte hartzen duten erkidegoen proportzioa.

- Monitorizazioaren maiztasuna eta efizientzia: Eginiko monitorizazioen kopurua eta erabiltzaileen atzeraelikapenei erantzuteko batez besteko denbora.

3. ardatza. Jasangarritasun ekonomikoa

1. Flota-kudeaketa efizientea egitea

- Garraio bakoitzeko kostua: Egindako garraio bakoitzaren batez besteko kostua-

- Prebentzio-mantentzearen efizientzia: Prebentzio-mantentzearen bitartez konponketa-kostuetan lortzen den murriztapenaren portzentajea.

- Erregai-aurrezpenaren indizea: Gidatze efizienteko praktikak ezarri ondoren erregai-kontsumoan erdietsitako murriztapen-portzentajea.

2. Teknologia eta programazio efizientearen erabilera

- GPS sistemen erabileran erdietsitako efizientzia GPS datuetan oinarrituriko ibilbide-optimizazioaren maila.

- Itxaronaldien murrizketa: Programazio-softwarea ezarri ondoren garraioetarako itxaronaldietan erdietsitako murrizketaren portzentajea.

- Baliabide-esleipenean lorturiko hobekuntza: Teknologia aurreratua ezarri ondoren langile eta ibilgailuen esleipenean lortutako efizientzia.

3. Erosketa eta eskurapen estrategikoak

- Erosketetan eta horniduretan erdietsitako aurrezpena: Hornitzaileekiko akordioen bidez lorturiko kostu-murrizketaren portzentajea.

- Ibilgailu-efizientiaren ebaluazioa: Ibilgailuen errendimendua, erregai-kontsumoari eta mantentze-kostuei dagokienez.

- Ibilgailu Efizienteen Ezarpenaren Indizea: Ibilgailu hibrido nahiz elektrikoek egiten duten flota-portzentajea.

4. Langileen trebakuntza eta garapena

- Gidaritza efizienterako entrenamenduan parte hartzea: Gidaritza efizienteko tekniketan trebaturiko gidarien proportzioa.

- Efizientzia operatiboko trebakuntzaren inpaktua: Etengabeko prestakuntzak akats eta gorabeheren murriztapenean izandako eraginaren neurketa.

- Lanbide-garapenaren ebaluazioa: Trebakuntzaren ondoren trebetasun teknikoetan eta pazientea artatzekoetan lorturiko hobekuntza-maila.

4. ardatza. Teknologia eta efizientzia

1. Programazio-sistema aurreratuen eta automatizazioaren ezarpena

- Adimen artifizialeko algoritmoen efizientzia: Adimen artifizialaren bitartezko ibilbide- eta baliabide-optimizazioak iritsitako maila.

- Administrazio-eginkizunen denbora-murrizketa: Automatizazioaren ondoren administrazio-eginkizunei eskainitako denboran lorturiko murrizketaren portzentajea.

- Txostengintzaren zehaztasuna: Txostengintza automatizatuaren zehaztasun- eta efizientzia-maila.

2. Denbora errealeko segimendua eta komunikazio eraginkorra

- Denbora errealeko segimenduaren zehaztasuna: Ibilgailuen kokalekuaren segimenduan erdietsitako zehaztasun-maila.

- Larrialdietako erantzun-denbora: Larrialdietako erantzun-denboran denbora errealeko segimenduari esker lorturiko murrizketa.

- Aldebiko komunikazioaren efizientzia: Eragin-kortasun- eta azkartasun-maila garraioko langileen eta osasun-erakundeen arteko komunikazioan.

3. Datu-erregistroa, -kudeatze-, ebaluatze- eta -analisi

- Erregistro elektronikoen zehaztasuna: Erregistro elektronikoen zehaztasun eta eguneratzea.

- Erregistro Medikoekiko integrazioa: Informazio mediko kritikoarekin garraioetan zehar zer integrazio- eta sarbide-maila lortzen den.

- Datu-analisiak operatibitatean duen eragina: Datu aurreratuen analisiaren bitartez hobeturiko efizientzia operatiboa.

4. Aplikazio mugikorren eta elkarte estrategikoen garapena

- Langileek eta pazienteek aplikazio mugikorrek erabiltzea: Garaturiko aplikazio mugikorren ezarpen-maila eta horri buruzko asebetetzea.

- Zentro teknologikoekiko elkarten inpaktua: Baterako berrikuntza- eta garapen-proiektuetatik lorturiko emaitzak.

- Teknologia berrietako trebakuntzaren maiztasuna: Langileei teknologia berrietako prestakuntzarako eskaintako programen kopurua.

5. ardatza. Komunikazioa eta erkidego-integrazioa

1. Tokian tokiko aholku-batzordeak ezartzea

- Batzorde-bileren maiztasuna eta haietara bertaratzea: Eginiko bileren kopurua eta ordezkarien bertaratzeko-maila.

- Erkidego-iradokizunen ezarpena: Aholku-batzordeek emanak izanik zerbitzuan ezarritako iradokizunen kopurua.

- Parte-hartzearekin lorturiko erkidego-asebetetzea: Erkidegoaren asebetetze-maila, aholku-batzordeetan izan duen parte-hartzeari dagokionez.

2. Inkestak eta kontsulta publikoak

- Inkesta publikoei erantzutearen tasa: Inkesta eta kontsultetan jasotako erantzunen proportzioa.

- Feedback-ean oinarrituriko estrategien ezarpena: Atzeraelikapen publikoan oinarrituriko aldaketa ezarrien kopurua.

- Erabaki-hartzearen gardentasuna: Erabaki-hartzearen prozesuari buruz erkidegoak hautesmandako gardentasun-maila.

3. Hezkuntza eta erkidego-sentsibilizazioa

- Hezkuntza-kanpainen irismena: Hezkuntza-kanpainak ukituriko pertsonen kopurua.

- Informazio-saioteko parte-hartzea: Informazio-bilkuretara bertaraten diren erkidegoen proportzioa.

- Hezkuntza-materialen inpaktua: Hezkuntza-materialak banatu ostean zerbitzuan erdietsitako ulermenaren eta haren erabileraren maila.

4. Tokiko erakundeekiko lankidetzak eta erantzukizun partekatuen sustapena

- Osaturiko elkarte estrategikoen kopurua: Tokiko erakundeekin eraturiko elkarten kopurua.

- Baterako proiektuen eraginkortasuna: Toki-erakundeekin batera garaturiko proiektuetatik lorturiko emaitzak.

- Boluntariora-programetan parte hartzea: Boluntario aktiboen kopurua eta horien inpaktua garraio-zerbitzuan.

Hori da jakinarazten dizudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Osasun Departamentuko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00298. Galdera, taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak galdera idatzia egin du (11-24/PES-00298), Taxiari buruzko Foru Legea taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez aldatze aldera Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz jakinarazten duena:

Bai, Lurralde Kohesiorako Departamentuak badauzka txosten juridikoak.

Iruñerriko Mankomunitateak 2024ko martxoaren 25ean hartutako 142/2024 Ebazpenean, Nafarroako Gobernuko Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu zitzaion azter zedin, foru lege hori aldatzeko

prozeduran, zilegi ote den diskriminatzailea izan litekeelakoan, Iruñerriko Mankomunitatearen eremuan taxi-lizentzia batzuk ezin eskualdatzea.

Arauren azterketa juridikoa egin da eta ez da inolako diskriminaziorik aurkitu, Arartekoari jakinarazi zaion bezala.

Iruñerriko Mankomunitateak Taxiari buruzko Legearen aldaketan txertatuak izan daitezen bidali dituen proposamenetan, ez du behin ere aipatzen xedapen gehigarri bakarraren aldaketarik egitea edo hori ezabatzea, non jasorik baitago eskualdaezintasuna.

Beraz, bere aldaketa-proposamenean ez denez mintzatu puntu horren aldatzetaz, baina bai, ordea, legearen beste artikulua batzuek, Lurralde Kohesiorako Departamentuan ulertzen duguna da ez duela arazorik ikusten hori dagoen horrexetan uztearekin testu berrian.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez, eta halaber ohartarazten dut ezen, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko dela helarazi zaizun edukia, eta bete beharrekoa dela Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00300. Galdera, migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak galdera (PES-11-24/00300) aurkeztu du, zeinaren bitartez informazioa eskatzen baitu migratzaileek foru-, toki- nahiz estatu-administrazio publikoetako zerbitzuekin duten harremana hobetzeko Departamentua hartzen ari den neurriei buruz. Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak, galdera horri erantzunez, honakoa jakinarazten du:

Nafarroa gizarte konplexu eta aldakorra dugu, eta bertako biztanleak gero eta aniztasun handiagokoak dira ikuspegi kultural eta etnikotik eta jatorriarenetik. Gizarte-kohesioari eustekoak baldin bagara, aniztasun horri aurre egin beharra dago. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak kulturarteko elkarbizitzari eta arrazismo nahiz xenofobiaren aurkako borrokari heltzen die aurrera daramatzan politika publikoen ezaugarri gisa, konprometitua dago-eta eskubide-berdintasunaren eta justizia sozialaren defentsarekin.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzen du politika egitea immigrazioaren, aniztasun etniko nahiz kulturalaren kudeaketaren eta migratzaileak gure foru komunitatean integratzearen alorrean. Eta hori egiten du aurreko legegintzaldian modu parte-hartzailean ondu ziren diagnostikoei, planei eta estrategiei helduz, haiek markatu baitzuten Zuzendaritzaren plangintza estrategikoa: Migratzaileei harrera egiteko Nafarroako Plana, Nafarroako Kulturarteko Elkarbizitzarako Estrategia eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko Plana. Urtero, Urteko Plan Operatibo bat egiten da, horren exekuzioarekin zerikusia duten departamentuekiko elkarlanean eta partaide direla

gizarte-entitateak, migratzaile-elkarteak eta herri-tarrak oro har. Aipatu planak markatzen ditu urtean zehar egin beharreko ekintzak, eta aurreko urtean gauzatutako ekintzak aztertzen dira. Urteko bi unetan (urtearen azken hiruhilekoa eta hurrengo urtearen lehen hiruhilekoa) sortzen diren harreman-gune horiek aukera ematen diete migratzaileei eta haien sareei administrazioarekin erlazionatu eta, horrela, migrazio-politika publikoaren plangintzaren barrenean egin beharreko urratsak proposatzeko. Eranskin gisa itsatsi da 2024rako Urteko Plan Operatiboa.

Bestalde, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak eratu dituen zerbitzu publikoetatik, zeinek Iruñean eta Tuteran baitaukate egoitza, arreta ematen zaie migratzaileei eta horren beharra duten profesionaleri, eta bakoitzari dagozkion galdereri erantzuten zaie.

Halatan, Nafarroako Gurutze Gorriak kudeaturiko migrazio alorreko Informazio eta Oinarrizko Orientazioko Zerbitzuak (IOOZ) lehenbiziko harreman bat eskaintzen du, Nafarroako administrazio eta kultur errealitatea ezagutzen laguntzen duena, zenbait zuzemenei buruzko oinarrizko informazio eta orientazioa eskainiz: errolatzea, gizarte-zerbitzuen sistema publikorako sarbidea, profesionaltasun-ziurtagirietarako prestakuntza-ikastaroetan sartzeko kodeak izapidetzea, gaztelania eta euskara ikasteko baliabideak, osasun-sistema publikorako sarbidea, hezkuntza-tituluen homologazio eta baliozkotzea, etxebizitza-sistema publikorako sarbidea, izaera orokorreko zerbitzuetarako sarbidea (kulturalak, kirol-arlokoak, erkidegokoak eta abar).

Ezbairik gabe, migratzaileek bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalen osotasunez parte hartzeko oztupo nagusietako bat da atzerriartasun-erregulazio baliatzeak jartzen dutena; alde horretatik, migratzaileentzako atzerriartasun-erregulazio arreta- eta aholkularitza-zerbitzuak, zeina Nafarroako Gurutze Gorriak kudeatua baita, asmo du migratzaileen gizarteratzea faboratzea, oztopoei aurre eginez eta informazio nahiz aholkularitza eskainiz eskabide-tramitazioan, atzerriartasun-erregulazioaren esparruan: gizarteko, laneko eta familiarako errotzea, edo prestakuntzarako, familia-berretarako, egoitza-baimenen berrikuntzarako, iraupen luzerako baimenerako, Europar Batasuneko herritarren erregistroko ziurtagiria, atzerriartasun-erregulazioaren esparruko espediente-aurkezpen telematikoa eta horretarako sostengua, Espainiako

naziotasunerako eskaerarako aholkularitza eta eskabide horiek telematikoki aurkezteko laguntza, oinarrizko informazioa hainbat alorretan (nazioarteko babesa, borondatezko itzulera, eskubide eta betebeharrak, eta abar). Zerbitzu honek arretaguneak dauzka, Iruñean eta Tuteran ez ezik, baita Lizarran, Lodosan, Tafallan, Altsasun, Irurtzunen eta Zangozan ere.

Nafarroako Gurutze Gorriak eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioak kudeatua den Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzua esku-hartze komunitarioko eredu bat garatzen ari da aniztasun kulturalaren kudeaketarako, gizarte-gatazkako egoerak prebenitu eta atzera botatzeko, kulturarteko herritar-elkarbizitzaren mesedetan. Horrela, populazio osoaren bizibaldintzak hobetzeko ekarpena egiten ari da. Egiten duen eskaintzan nabarmentzen dira kulturarteko bitartekaritza, kulturarteko topaketarako toki-proiektuak garatzeko elkarlana, hainbat hizkuntzatan eskaintako hizkuntza-bitartekaritza eta kultur nahiz kulturartekotasunaren ildoen arabera informazioa, aholkularitza eta prestakuntza, bai herritarrak oro har bai esku-hartzearen alor desberdinetako profesionalak helburu harturik.

Familia-sostengurik gabeko 18 urtetik 23ra bitarteko migratzaile gazteei zuzendutako Kideak zerbitzuak asmo du herritartasun-erakitze bateratuko prozesuak sustatzea ardura konpartituko ikuspegi batetik; genero-desberdinkeriak borrokatzea emakumeak ahalduz eta maskulinitasun berdinzaleak sustatuz; eta gazte-biztanleria horrekin autonomia-prozesuak lantzea, haiek baliabide instituzional eta sozio-komunitarioetarako sarbidea izan dezaten erraztuz.

Arrazismo eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzuak (AXAZ) helburu du herritar guztiei bermatzea haiek beren eskubideak tratu-berdintasunez eta diskriminaziorik ezean baliatu ahal izatea; horretarako, arreta integral eta diziplina antzekoa jartzen du, oinarritzen dena arrazismo eta/edo xenofobiako arrazoiengatik diskriminazio-egoera hautemanekiko ikusmolde errestituzio batean, genero- eta interseksionalitate-ikuspegi batetik.

Hain zuzen ere zerbitzu horixe da, IOOZarekin batera, migratzaileen ikuspegitiko feedback bat eskaintzen duena haiek administrazio publikoetara beren harremana hautematen eta sentitzen duten moduari buruz. Horrela, diskriminazio-sentimenduen berri ematen dute, haiek beren jatorri, hizkuntza, arraza, egoera sozioekonomiko, administrazio-egoera irregular edo zerbitzu eta/edo prestazioak eskuratzeko zailtasunekin lotzen dituztenen berri alegia.

Bestetik, planen eta estrategien segimenduan diharduten departamentu desberdinetako teknikariek, eta bereziki beren lanbide-jarduna Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusian egiten dutenek, halaber eskaintzen dute ikuspegi profesional bat, modua ematen duena Nafarroako Gobernuaren politika publikoak hobetzeko, herritar berri horien beharrezanez erantzunez, haiekin gune desberdinetan erlazionatuta.

Alde horretatik, eta laborpen modura, jarraian ematen da azaleraturiko zailtasunen berri, bai eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentutik abiatutako ekintzen berri ere.

1. Erroldatzea. Administrazioarekiko harremaneko lehenbiziko zailtasunetako bat da, zeren eta udal-errolan erregistratu ezinak eragotzi edo murriztu egiten baitie udaleko, foru erkidegoko eta, batzuetan, estatuko zerbitzu publikoetarako irispidea: administrazio-egoera erregularizatzeko dokumentazioa (egoiliar-aldiak udal-errolako antzintasunari buruzko ziurtagiriek frogatzen dira), oinarrizko gizarte-zerbitzuetan elkarrizketak egiteko zailtasunak, osasun-txartel indibiduala lortzekoak, udal kirol-zerbitzuak erabiltzekoak, aisialdikoak...

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak ekintza desberdinak egin ditu:

A. Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro andreak bilera egitea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Xabier Alcuaz jaunarekin, Nafarroako Gobernuaren eta toki-entitateen aldeko intereseko beste zenbait aferaren artean heltzearen erroldatzeetarako protokolo amankomun bat sortzeari, oinarrituta egonen dena indarreko araudian, zeinak xedatzen baitu errolda bideratu beharrekoa dela zein ere den udalerrri bakoitzean bizi diren pertsonen administrazio- edo etxebizitzako egoera. Halako protokolo batek modua emanen lieke Nafarroan egoera irregularrean dauden migratzaileei "baliabide publikoak erabiltzeko; eta, horrela, haien gizarteratzea faboratuko luke".

B. Hainbat erakunde sozialekiko solaskidetzak. Haiek berretsi dute gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden etorkinek zailtasunekin topo egiten dutela bizi diren udalerrian erroldatzeko daukaten herritar-betebeharra betetzeko, eta ezintasun horren ondorioak azaldu dituzte.

C. Erroldatzea eskatzeko protokolo bat garatzea Nafarroako Arartekoaren erakundearekin lankidetzan, erroldatze-zailtasunak jatorriaren edo arrazaren ondoriozko diskriminazio-egitate gisa azaltzen dituzten pertsonentzako.

2. Zerbitzu edo prestazio publikoak eskuratzea. Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak honako urrats hauek egiten ditu:

A. Hiru hilean behin koordinatzea gizarte-erakundeekin, Foru Komunitateko zerbitzu publikoen erabilerrako zailtasunen berri emateko, honelako-
ei dagokienez: hitzordu-lorpena eta/edo hitzordulorpenarako itxaronaldiak, prestazio edo zerbitzu zehatz batzuen erabilera... Batik bat, zerikusia daukate gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemekin.

B. Migratzaileen Foroa egitea urtean bi bider gutxienez, herritar-harremaneko gune horretan migratzaileen parte-hartze sozialaren bidez beren kezken, zailtasunen eta Nafarroako Gobernuari egiten dizkieten eskaeren berri izateko.

C. Akonpainamendua eta/edo koordinazioa Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuetatik (AXAZ, Kideak...) edo Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusitik bertatik, horiei buruzko informazioa eskuratzeko, azaldutako egoera indibidualei erantzuna eman eta zailtasun berriak ekiditearren.

D. Arreta-prozesu integral eta jarraituak eratztea migratzaile diren familia-unitateen, haurren, nerabeen eta gazteen inguruan eta haien beharri-
zan berezien inguruan, lehenetsuna emanik kolektibo zaurgarriari. Zehazki:

– Kideak zerbitzuaren lizitazio berria: EGIF+ek emandako finantzaketarekin aurrekontua handitzea 529.944 eurotik aurtengo 783.000 euroetara. Horrek ekarri du 50etik 68ra igotzea postu-kopurua eta parte-hartzaileei emandako laguntza psikologikoa indartzea, pairatzen duten migrazio-doluzko prozesuarengatikoa.

– Esperientzia pilotua garatzea, sukaldeko laguntzailearen I. mailako profesionaltasun ziurtagirirako prestakuntzarako, administrazio-erregulazioa eta laneratzea, Kideak eta Lantxotegiko parte-hartzaile diren egoera irregularreko gazte migratzaileei zuzendua, honako hauen lankidetzarekin: Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Atzeritarren Bulegoa, CEN, Asociación Hostalera de Navarra eta DGPM.

– SEI elkartearekiko hitzarmena indartzea, migratzaileen familiak berrelkartzearen eta doluaren arloko zerbitzua emateko. Aurrekontua handitzea 125.000tik 170.000 eurora

– Tawasol Artean proiektu pilotua garatzea, gazte migratzaileendako nafar estrategiaren bideorriaren barruan, kultura ezberdinetako gizon eta emakumeen arteko harreman gogobetekoak errazte aldera.

E. Entitate sozialei eta tokiko entitateei babesa ematea zaurgarritasuneko egoeran dauden etorkin-
nekin egiten duten lanean, haiekiko harreraren nola kultura arteko bizikidetzan, elkar errekonozitzean oinarritutako gizarte-kohesio handiagoa sustatzeko, honako hauen bidez:

– Cintruénigo eta Fiteroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekiko hitzarmena, “Zaurgarritasun egoeran dauden emakume eta adingabe migratzaileen ongizate psikosoziala eta gizarteratzea sustatuz Cintruénigon eta Fiteron”, gatzelania ikasiz eta gaitasun sozioemozionaletan gaituz, gizarteratzea eta komunitatearen gizarte-kohesioa errazteko helburuarekin: 110.000 euro.

– CEAREkiko hitzarmena, igarotzeko programetarako, babesa eta asiloko nazioarteko babesaren programetan daudenentzat, ukoagatik edo amaieragatik programetatik ateratzen direnean: 5.000 euroko igoera, 150.000tik 155.000 eurora.

– Hitzarmen berria Elkarterekin, eguneko zentroetan programa bat garatzeko gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden etorkinentzat: 60.000 euro.

– Hitzarmen berria Apoyo Mutuo elkartearekin, gazte migratzaileak bizitegi-baliabide duinetan gera daitezen, haien harrera- eta gizarteratze-ibilbideak sustatzeko: 20.000 euro.

– Migratzaile gazteei harrera, laguntza eta oinarrizko gaitasunetarako prestakuntza emateko programak sendotzea, esaterako, bakarrik dauden gazte migratzaileei harrera, akonpainamendua eta prestakuntza emateko Ahlan Bek programa, gizarteratzean honako hiru ikuspuntuetatik lan egiten duena: dauden egoera berria testuinguran jartztea, gizarte-akonpainamendua eta trebetasun pertsonal, sozial eta profesionalen sustapena; berrikuntza moduan, emakume migratzaileendako programa bat dago, kontziliario zerbitzu bat duena. Gainera, aurten lanaren aurretiko prestakuntzarako programa bat dago, lore-konposizioaren eta lorezaintzako oinarrizko nozioen arlokoa, emakume migratzaileei zuzendua, familia-kontziliario zerbitzua duena. Aurrekontua handitzea 90.000 eurotik 203.000 eurora.

3. Hizkuntza ez jakiteak zaildu edo eragotzi egiten du administrazioarekiko harremana, gauzak adierazteko ezintasunagatik. Departamentuek kontratatuta duten Teleitzulpenaren Zerbitzuaz gain (DUALIA), Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak honako jarduketak hauek egin ditu:

A. Hezkuntza Departamentuarekin eta Euskarabidearekin lankidetzan aritzea migratzaileei gaz-

telania eta euskara ezagutzeko eta ikasteko zuzendutako eskaintza areagotzeko.

B. Kontratu txiki bat gauzatzea azterlan bat egiteko, identifikatze aldera migratzaileek Nafarroako hizkuntza koofizialak (gaztelania eta euskara) ezagutzearen eta ikastearen inguruan dituzten beharizanak, pertsona horien bizitzaren testuinguruan (jatorri sozial eta etnikoa, generoa, adina, bizilekua, familia-egoera eta abar) eta, halaber, identifikatze eta aztertze aldera egun dauden prestakuntza-baliabide eta -programak, baloratu eta garatu ahal izateko eredu koordinatuago bat, migratzaileen ikasketara bideratua. Aurtengo azaroan amaituko da.

C. UHUNekiko hitzarmena, migratzaileei gaztelaniazko gaikuntza eskaintzeko: 35.010 eurotik 60.000 eurora igotzea (gaikuntza ematen den hilabeteak areagotu dira; lehen urtariletik maiatzera, eta orain urtariletik maiatzera eta irailetik abendura).

4. Arretaren kalitatea. Gai hori betetzeko asmoz, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak honako jarduketak hauek egiten ditu:

A. Tresnak eskaintzea zuzeneko arretan ari diren profesionaleri, beren jardunean zubiak eratzeko kultura arteko bizikidetzak errazteari eta tratu inklusiboa eta arrazakeriaren aurkakoa bermatzeari begira; esaterako, administrazioko enplegatuekiko prestakuntza:

– NAPIren prestakuntzako eskaintzaren barnean, berdintasunaren eta migrazio-politiken arloko prestakuntzaren espezialitatea sortu da, halako moduz non administrazioetako langile publikoek prestakuntza hori aukeratu ahal duten hura lehenetsi behar izan gabe lan egiten duten departamentuaren edo beren espezialitate teknikoaren prestakuntza-eskaintzaren gainetik (biak aukeratu ahal dituzte, lehiatu behar izan gabe).

– Prestakuntzako ekintza berariazkoak, departamentuetako profesionaleri zuzenduak, atzemandako edo eskatutako beharizanekin bat: larrialdi medikoen zerbitzuetako sarbidea, migratzaileak hartzearen mesedetan, ikastetxeak...

– Zurrumurruen kontrako prestakuntza, gizarte eta toki entitateetako eta Nafarroako Gobernuko departamentuetako profesionaleri zuzendua, gizartearen eraldaketa bat sortuz giza eskubideen errespetutik, aukera- eta tratu-berdintasunetik eta diskriminazio ezetik abiatuta, eta aniztasuna gizarte osoarentzat positibo eta aberasgarri den osagai gisa aurkeztuz. SOS Arrazakeriaren Zurrumurruen aurkako eragileen prestakuntza programarekiko hitzarmenaren aurrekontua bikoiztu da, bertan eragiteko, 10.000tik 20.000 eurora.

B. Lankidetzak hezkuntza formalaren arloan (ikastetxeak, helduen hezkuntza...) kultura arteko bizikidetzako gatazkak eta diskriminazio ekintzak kudeatzeko.

5. Baliabideen gaineko informaziorik eza. Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak honako urrats hauek egiten ditu:

A. Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu publikoen hedapena departamentuei, kolektibo profesionaleri (polizia, gizarte zerbitzuak...) eta toki-entitateei (Iruñeko Udala, TECIR sarea...).

B. Gizarte-entitateekiko babesak areagotzea migratzaileei harrera eta akonpainamendua eskaintzeko. 2023an gizarte entitateendako dirulaguntzen urteko deialdia genuen migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta laguntza egiteko; aurrekontua 445.498 eurokoa zen, 170.000 euro Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren beraren aurrekontuarekin, eta gainerako 275.498 euroak, PFEZaren % 0,7ko funtsekoak. 2024an dirulaguntzen bi deialdi argitaratu ziren, 655.450 euroko guztirako aurrekontuarekin; urteko deialdiak 455.450 euroko aurrekontua du, eta 2024., 2025. eta 2026. urteetarako urte anitzeko deialdiak 275.000 euroko aurrekontua du urte bakoitzeko (deialdi horrek Europako finantzazioa du, Europako Gizarte Funtzarena), eta bidea ematen du epe ertaineko harrerako prozesuak ezartzeko, hiru urterako finantzazioa kontuan hartzen baitu deialdiak.

6. Diskriminazio arrazazkoa eta xenofobia administrazio publikoarekiko harremanean: Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak honako urrats hauek egiten ditu:

A. Prebentziozko neurriak hartzea, baliabide materialak eta giza baliabideak ezartzea eta hobetzea administrazio publikoa izan dadin diskriminazio arrazazkoa eta xenofobia prebenitzeko zerbitzuen erabiltzailea eta emalea:

– Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko Nafarroako Arreta Zerbitzua sendotzea; joan den urtean lizitatu zen (aurrekontua 179.153 eurotik 200.773 eurora igo da), eta 2024an langilegoa areagotu da eskaera igo delako.

– Nafarroan jarduten duten polizien (Foruzaingoa, Guardia Zibila eta udaltzainak) eta gorrotozko delituez arduratzen den fiskaltzarekin arteko lan koordinatua sendotzea, arrazismoaren eta xenofobiaren prebentziorako eta haien aurka borrokatzeko (2024-2027). Zehazki:

• Prestakuntzako ekintzak eskaintzea AXAZ eta gorrotozko delituen fiskalaren aldetik.

- Prestakuntzako moduluak sartzeari Polizien Eskolan (nahitaezko ikastaroak sarbiderako eta igoerarako) migrazioen, kultura arteko bizikidetzaren eta arrazismo eta xenofobiaren aurkako arloetan.

- Nafarroan jarduten duten polizien arteko koordinaziorako eta lankidetzarako guneak sortzea (Polizia Nazionala, Foruzaingoa, Guardia Zibila eta udaltzaingoa), AXAZek jasotzen dituen ekintza diskriminatzaileei aurre egiteko hiru hilabeteko mahaien eta komunikazio etengabeen bidez, agertzen diren egoeren aurrean.

- Lankidetzaren toki-entitateen (140.000 eurotik 170.000 eurora), irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko entitateen (195.000 eurotik 213.436 eurora) eta migratzaileen elkarten (83.000 eurotik 91.300 eurora) artean, proiektuak eta jarduerak egiteko kulturen arteko bizikidetzaren sustatu eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatze aldera (azken bietarako igoera izan da dirulaguntzen deialdien partidan, PFEZaren % 0,7ko funtsaren finantzazioarekin), igoerak eginez lehen aipatutako dirulaguntzen deialdien partidetan.

- Igoera toki-entitateendako urte anitzeko dirulaguntzetan, kultura arteko bizikidetzako figura teknikoak kontratatuz, lanak gutxienez ere hiru urtez jarraituko duela bermatzeko asmoz. 290.000 eurotik 391.500 eurora: Berriki urte anitzeko bigarren deialdia argitaratu da eta orain kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako 12 teknikari ditugu, Nafarroako Gobernuaren finantzazioarekin.

- Koloreetako Eskolak programatik lantegien eskaintza handitzea ikastetxeentzat, kultura arteko bizikidetzari eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarari heltzeko Nafarroa osoko ikasgeletatik: 10.000 eurotik 20.000 eurora; halaber, datorren ikasturteari begira arretagunea hedatuko da gurasoen elkarteetara eta ILZra.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00301. Galdera, Bidean ente instrumental deklaratzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Bidean ente instrumental deklaratuaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak idatziz erantzuteko galdera hau egin du (11-24/PES-00301): Gobernuak zergatik ez du oraindik Bidean ente instrumental

izendatu? Ba al dago arazorik? Noiz du hori egiteko asmoa? Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Bidean osasun-garraioko enpresa publikoa ente instrumental izendatzea Ogasun Departamentuari dagokio, eta gauzatze-prozesuan dago gaur egun. Edonola ere, Bideanek lanean jarrai dezake kronograman aurreikusitakoari eta 2024ko ekainaren 5ean Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean egindako agerraldian azaldutakoari jarraikiz.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00302. Galdera, Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak idatzizko erantzunerako galdera hau egin du (11-24/PES00302): zer kostu ekonomiko aurreikusten da guztira Bidean enpresa publikoa abian jartzeko, kontzeptuen arabera xehakaturik? Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

	2024	2025 (1/1-31/3)	Guztira
Langile-kostuak	375.899	114.905	490.804
Eratze-gastuak eta kontu ofizialak	13.035		13.035
Renting-a		487.469	487.469
Nabeak alokatzea	398.514	48.750	447.264
Ekipamenduaren mantentze-lanak		24.321	24.321
Lan-aholkularitza	12.500	7.523	20.023
Kalitate Sistema Integratua	7.175	3.025	10.200
Flotak kudeatzeko plataforma	18.000	42.500	60.500
NEKP	100.000		100.000
Gastu informatikoak + Webgunea	1.552	5.646	7.198
Gastu askotarikoak eta hornidurak	33.325	73.308	106.634
Simulagailua		525.000	525.000
Anbulantzia-terminalak	100.000		100.000
Altzariak	75.958		75.958
Enpresaren hondar-materiala erostea		500.000	500.000
Aplikazio eta ekipamendu informatikoak	64.042		64.042
Elektromedikuntza		1.253.100	1.253.100
Ibilgailuak		200.000	200.000
Guztira	1.200.000	3.295.939	4.495.939

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00303. Galdera, udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak udan medikuen ordezkapenak egite aldera Osasun Departamentuak hartutako neurriei buruz egindako galde-

raren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak informazioa eskatu du (11-24/PES-00303), honako hau jakiteko: “Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak Nafarroako medikuen oporrak estaltzeko lehen mailako osasun-arretan eta arreta espezializatuan (ospitaleak eta kontsultak)?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Ahal denean, kontratazioa ohiko bideetatik egingen da. Hori ezin denean egin, ohiz kanpoko jarduera antolatzen da.

Azkenekoz, jarduera doitu egiten da udagaraiari, aurreko urteetan egin den eran, eta joan den ekainaren 20an jakinarazi zen eran: <https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/osasun-departamentuak-baliabideak-egokitu-ditu-udako-eskarira-eta-1-100-kontratazio-baino-gehiago-egin-ditu-oporrak-eta-baimenak-betetzeko?pageBackId=363032&back=true>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00304. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak irisgarritasun unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00304 galdera egin du idatziz erantzun dakion, Nafarroako Gobernuari informazioa eskatzeko. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

1. Noiz onetsiko du Nafarroako Gobernuak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa?

2024ko ekainaren 12ko Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez onetsi zen.

2. Nafarroako Gobernuak noizko uste du beteko duela Parlamentuko Erregelamenduaren 227.1 artikuluan ezarritakoa, eta noiz igorriko du plan hori, Parlamentuak bere iritzia eman dezan, eskatu den moduan?

Bidalia izan da jada.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 27an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00305. Galdera, dantzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak antzaren Nafarroako irakaskuntza artistiko ofizialari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Abuztuaren 5a

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-24/PES-00305 galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak jakinarazten duena:

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak arte-ikasketetako goi-mailako tituluen izenak aldatu ditu. Dantzaren kasuan, honako hau da izen berria: "Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako Gradu Titulua". Izena aldatzeaz harago, ez da aldaketarik egin tituluaren estatusen; izan ere, bai 2006ko Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan (54.3 art.) bai 1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legean, xedatu zen ondorio guztietarako baliokideak zirela

Dantzako Goi Titulua eta Unibertsitateko Gradudun eta Lizentziadun tituluak.

Ekainaren 7ko 1/2024 Legeak, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituenak eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituenak, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruko goi-mailako arte-irakaskuntzak bateratzen ditu. Kontu horrek ere, praktikan, ez dakar inolako berritasunik; izan ere, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, bere erregelamenduzko xedapenen bidez (1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, eta 632/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa), jada osoki sartu zituen esparru horretan.

Aldiz, berria da arte-irakaskuntza profesionalerako gaitasun profesionalak ofizialki egiaztatzeko aukera, aipatutako 1/2024 Legean ezarria, Musikako eta Dantzako lanbide-irakaskuntzetan zein Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-irakaskuntzetan.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Dantza Eskolaren titular izaten jarraitzen du. Entzute handiko ikastetxea da, eta 350 bat ikaslek jasotzen dute prestakuntza hor. Ez da aurreikusten ikastetxearen izaera aldatuko denik, ez eta Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko ikastetxe berririk sortuko denik ere.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00306. Galdera, "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko erantzunerako galdera egin du (11-24/PES-00306) "Nortasun digitalaren Wallet-a" proiektuari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nortasun Digitalaren Wallet-a proiektuari dago-kionez, jakinarazten dugu Nasertic sozietate publikoak lizitatuta dagoela gaur egun, eta Veridas Digital Authentication Solutions SL enpresari esleituta; hori horrela, azken enpresa hori ari da proiektua exekutatzeko.

Proiektuaren guztizko aurrekontua 800.000 €-koa da (zergak barne). Enkargu hori partida honetan dago kontabilizatuta: 900009 90300 6094 233105 MRR Enkargua Nasertic-i: nortasun-walleta.

Hura abian jartzeko epea Nasertic sozietate publikoari egindako enkarguan jasotakoa da.

Alabaina, datu biometrikoak tratatzea eskatzen duenez, eta Datu Babeserako Unitate Deletatuaren proposamenari jarraikiz, Datu Babeserako Erregelamenduan eskatzen den inpaktu-ebaluzioa kontrastatu ostean, pilotatze-fase bat eginen da hasieran, hartzaile talde txiki batekin, lehendik dauden sistemen aldean sistema proposatuak dituen diseinu-premisak eta erabilgarritasuna eta segurtasuna baliozkotzeko.

Lehen fase horren aplikazio-eremua, lehen pilotu gisa, aukeratutako erabiltzaile jakinetara mugatuko da, zerbitzu publikoetarako sarbide sinpleagoa eta seguruagoa behar izan dezaketenetara.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00307. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00307 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, 2022ko Plan Operatiboko jarduketa-planei buruz (48.1 neurria). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horren harira ematen duen informazioa:

Irisgarritasun Planean oinarrituta egindako planak aurkezten ditut honekin batera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentari guztien eskura dago Agorako Kudeaketa Parlamentarioa atalean).

11-24/PES-00308. Galdera, Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako Gobernuaren harrera-baliabideei eta adingabeen baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00308 galdera

egin du, idatziz erantzun dakion, zeinetan honako hau galdetu baitu:

- Nafarroako Gobernuak zer harrera-baliabide eta adingabeen baliabide ditu? Zehaztu Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari atxikiriko egoitza-baliabideak, baliabide mota, edukiera eta egungo okupazioa.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari horri buruz ematen duen informazioa:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak honako egoitza-baliabide hauek ditu, Haurtzaroren, Nerabezaroren eta Familiaren Zuzendariordetzaren mende-koak:

Behaketa- eta harrera-zentroak (BHZ):

	Izena	Edukiera	Okupazioa 24-07-15ean
< 14 urte	Belosoko BHZ	15	24
	Orvinako BHZ	8	8
	Barañaingo BHZ	8	8
>14 urte	Ilundain/Etxegaray BHZ	12	18
	Argarai BHZ	6	8
Adingabe migratzaileak	Martzillako BHZ	40	51

*Orvinako BHZ eta Barañaingo BHZ Belosoko BHZren mendeko guneak dira, eskariari erantzun emateko irekiak. Orvinako BHZa 2023ko martxoan ireki zen, eta Barañaingo BHZa, 2024-06-03an. Ilundain/Etxegaray BHZa Ilundain herrian dago gaur egun, Vergel kaleko Felix Etxegaray egoitzara lekualdatzeko zain, gunearen egokitzapena burutzen denean lekualdatuko baita.

Egoitza-harrera espezializatua

Izena	Edukiera	Okupazioa 24-07-15ean
Mutiloa	5	4 + beste erabiltzaile bat sartze-prozesuan
Gorraitz	5	5
Ermitagaña	5	5
Beriain	5	5
Oñarri	10	9 + beste erabiltzaile bat sartze-prozesuan

Oinarrizko egoitza-harrera

Izena	Kudeatze-entitatea	Edukiera	Okupazioa 24-07-15ean	
Artika 1	Ilundain - Haritz Berri fundazioa	9	7 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan	
Orkoién		9	7 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan	
Zizur		9	6 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan	
Fontellas		9	9	
Artika 2		9	8	
Mutiloa		9	9	
		Nafarroako "Nuevo Futuro" elkarte		
Nafarroa Beherea	8		7 + beste erabiltzaile bat sartze-prozesuan	
Barañain	8		5 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan	
Ermitagaña	8		8	
Uharte	8		8	
Eneko Aritza	8		8	
Lezkairu Soto	8		6 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan	
Tutera	8		8	
Atarrabia	8		8	
Trantsizio-etxea	8		8	
	Xilema fundazioa			
Ermitagaña			8	6 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan
Iturrama		8	8	
Mendillorri		8	8	
Atarrabia 1		8	8	
Atarrabia 2		8	8	
	Berriztu elkarte			
Garapen		8	8	

Autonomia-etxebizitzak

Izena	Edukiera	Okupazioa 24-07-15ean
Deierri etorb. (Lizarra)	6	5
Haurdun dauden emakumeak (Iruña)	3	4
Alfonso Borrokariaren kalea (Iruña)	5	5
Tutera kalea (Iruña)	5	5
Eneko Aritza (Iruña)	5	5
Isaac Albéniz (Iruña)	5	5
Iturrama (Iruña)	5	5
Urdazubiko monasterioa (Iruña)	6	5 + beste erabiltzaile bat sartze-prozesuan
Pio XII.a (Iruña)	5	5
Sadar (Iruña)	5	5
Sanduzelai (Iruña)	5	3 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan
Belate	4	4
Yamaguchi	4	4
Berritzu (Iruña)	4	3
Ibia (Sarriguren)	6	5 + beste erabiltzaile bat sartze-prozesuan
Tafalla	5	5
San Frantzisko Xabierkoa (Tutera)	4	4
Pablo Sarasate (Tutera)	5	5
Alberto Pelairea (Tutera)	5	3 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan
Zaragozako etorb. (Tutera)	5	5
Kaputxinoak (Tutera)	5	5
Juan Antonio Fernández (Tutera)	5	5
Iruña pasealekua II (Tutera)	5	3 + beste 2 erabiltzaile sartze-prozesuan
Barañain	5	5

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 16an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu illafranca

11-24/PES-00309. Galdera, ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak ekografietarako gogoan hartzen ari den konponbide robotizatuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera (11-24/PES-00309) egin du, idatziz erantzun dakion, Tuterako Reina Sofía ospitalean ekografiak egiteko konponbide robotizatuari buruz. Hona hemen Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

– Zertan datza Osasun Departamentua Tuterako Reina Sofía ospitalean ekografiak egiteko gogoan hartzen ari den konponbide robotizatua?

Navarrabiomeden bidez, merkatu-kontsulta publikoa jaulki da, jakiteko erradiologia-zerbitzurako zer irtenbide dauden eskualde-ospitaleetako larrialdien esparruan. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aztertuko ditu aurkezten diren irtenbideak, eta horiek ez duten zertan “konponbide robotizatuak” izan; betiere, indarreko araudiari jarraituko zaio.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iñaki Iriarte López jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 26an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak foru parlamentari izaerari uko egite aldera aurkeztu duen idazkia dela-eta, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez uko egiten baitio foru parlamentari izaerari —izaera hori apiri-

laren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskondeetan lortu zuen (68. zenbakiko NAO, 2023ko apirilaren 4koa), Unión del Pueblo Navarro alderdi politikoa-ren hautagaitzaren barruan—.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

María Isabel Olave Ballarena andrea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari María Isabel Olave Ballarena andreak idazki bat aurkeztu du 2024ko abuztuaren 26an, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartu dela adierazteko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jakintzat ematea foru parlamentari María Isabel Olave Ballarena andrea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartu izana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias